*Los cargos de Presidencia y Secretaría de la Asamblea General los ostentarán quienes tengan los de la Junta Directiva. En defecto o ausencia de ellos serán designados por las entidades asociadas asistentes por mayoría.*

**18.art:**

Batzar Orokorrari dagokio <u>**ohiko bilkuran:**</u>

a) Presidentea, Idazkaria eta Diruzaina aukeratzea eta kargu-uztea eta, egongo balitz, Zuzendaritza Batzordea osatzen duten gainerako kideak ere,

***Art. 18:***

*Corresponde a la Asamblea General convocada en <u>sesión ordinaria:</u>*

*a) La elección y el cese de la Presidencia, Secretaría, Tesorería y, si lo hubiere, de los demás miembros de la Junta Directiva mediante acuerdo adoptado*

bertan diren entitate bazkidetuen botoen **gehiengo nagusi** batez hartuko den akordioaren bidez.

b) Ekitaldi bakoitzeko urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertu eta onartzea.
c) Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onestea.
d) Beste Elkarteekin federatzea edo konfederatzea, edo horietako batetik irtetea.
e) Ondasun higiezinak erosi, erabili edo besterentzea adostea.
f) Zuzendaritza Batzordeko kideentzako ordainketak adostea.
g) Ohiko edo ezohiko kuotak ezartzea. Batzar Orokorrak Zuzendaritza Batzordeari eskuordetu diezaioke berariaz hartutako akordioaren bidez.
h) Estatutuek Batzar Orokorrari ematen dizkioten bestelako eskumenak.
i) Entitate bazkideturen baten behin betiko banaketa erabakitzea.

*por **mayoría absoluta** de los votos de las entidades socias presentes.*

*b) Examinar y aprobación de las cuentas anuales y del presupuesto del ejercicio siguiente.*
*c) Aprobar la gestión de la Junta Directiva.*
*d) La federación y Confederación con otras Asociaciones, o el abandono de alguna de ellas.*
*e) La aprobación de la adquisición, disposición o enajenación de bienes inmuebles.*
*f) El acuerdo de remuneración de los miembros de la Junta Directiva.*
*g) La fijación de cuotas ordinarias o extraordinarias, si bien esta facultad puede ser delegada por la Asamblea General a la Junta Directiva mediante acuerdo expreso.*
*h) Cualquier otra competencia que los estatutos atribuyan a la Asamblea General.*
*i) Acordar la separación definitiva de alguna entidad asociada.*

**<u>19.art:</u>**

Batzar Orokorrari dagokio, **<u>ezohiko bilkuran</u>** ondorego gaiak ezagutzea eta beraiei buruzko erabakiak hartzea:

a) Estatutuak aldatzea.
b) Zuzendaritza Batzordeak gutxienez edo 17. artikuluan ezarritakoaren arabera entitate bazkidetu guztien heren batek planteatutako gaien inguruko akordioak erabakitzea.
c) Elkartea desegitearen inguruko erabakia hartzea, Estatutu hauen 38. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta ondasunak erabiltzearen edo besterentzearen inguruko erabakiak hartzea.

***<u>Art. 19:</u>***

*Corresponde a la Asamblea General reunida en **<u>sesión extraordinaria</u>** conocer y decidir sobre las siguientes materias:*

*a) Decidir la reforma de Estatutos.*
*b) Decidir acuerdos sobre cualquier cuestión que le sea acometida por al menos la Junta Directiva o a petición de las entidades asociadas que representen 1/3 señalado en el Art. 17º.*
*c) Decidir sobre la disolución de la Asociación según lo establecido en el Art. 38º de los presentes Estatutos, así como sobre las disposiciones o enajenaciones extraordinarias de bienes.*

**<u>20. art:</u>**

Batzar Orokorretarako deialdiak, ohikoak eta ezohikoak, idatziz egingo dira, eta deialdietan adieraziko da bilkuraren lekua, eguna eta ordua, eta landu beharreko gaien Gai Zerrenda zehatza adieraziz.

Deialdiaren eta Batzarraren lehen deialdirako adierazitako egunaren artean gutxienez 15 egun egon beharko dira, premia eta beharra dagoela jotzen denean salbu. Hala egiten bada, Batzar Orokorra bigarren deialdian zein egun eta ordutan bilduko den adieraziko da.

***<u>Art. 20:</u>***

*Las convocatorias de las Asambleas Generales, tanto ordinarias como extraordinarias, serán hechas por escrito, expresando el lugar, la fecha y la hora de la reunión, así como el Orden del Día con expresión concreta de los asuntos a tratar.*

*Entre la convocatoria y el día señalado para la celebración de la Asamblea en primera convocatoria, deberán de mediar, al menos 15 días salvo en caso de urgencia y necesidad, pudiendo así mismo, hacer constar la fecha y hora en la que, si procediera, se reunirá la Asamblea General en segunda convocatoria.*

**<u>21.art:</u>**

Batzar Orokorrak, ohikoak zein ezohikoak, lehen deialdian balio osoz osatuko dira, baldin eta boto eskubidea duten entitate bazkidetuen erdia eta bat gehiago agertzen bada, eta bigarren deialdian, boto

***<u>Art. 21:</u>***

*Las Asambleas Generales, tanto ordinarias como extraordinarias quedarán válidamente constituidas en primera convocatoria cuando concurran a ellas, presentes o por representación la mitad más una de las*

eskubidea duten entitate bazkidetuen kopurua edozein izanda ere.

Batzar Orokorretan parte hartze aldera, entitate bazkidetuek beren ordezkaritza edozein beste entitate bazkideturi eskuordetu diezaiokete. Ordezkaritza idatziz eman beharko da eta Idazkariaren eskuetan egon beharko du Batzarra egiten den egun berean eta hasi baino lehenago, eta azken honek erabakiko du ordezkaritzak balioa duen ala ez.

Idatziz eginiko bozketa eta eguneko aztergaien zerrendan aurretiaz jaso gabe soilik onartuko da, baldin eta entitate bazkidetu bakar bat ere prozedura honen kontra agertzen ez bada.

*entidades asociadas y en segunda convocatoria, cualquiera que sea el número de entidades asociadas concurrentes.*

*Las entidades asociadas podrán otorgar su representación a los efectos de asistir a las Asambleas Generales, a cualquier otra entidad asociada. Tal representación se otorgará por escrito, y deberá obrar en poder de la Secretaría en el mismo día antes de la hora de inicio de la Asamblea, quien decidirá sobre la validez de la representación.*

*La votación por escrito y sin estar incluido en el orden del día sólo será admisible cuando ninguna entidad asociada se oponga a este procedimiento.*

**22.art:**

Batzar Orokorraren gehiengo soilez hartuko dira, baiezko botoak ezezko botoak baino gehiago direnean. Dena dela, botoen gehiengo kualifikatua beharko da, eta hau emango da baiezko botoak balio osoz eman diren boto guztien erdia baino gehiago direnean, ondorengo gaiei buruzko akordioak hartzeko:

- Elkartea desegitea
- Estatutuak aldaraztea
- Ondasunak erabiltzea edo besterentzea
- Ordezkaritza organoko kideen ordaina.

Hartutako akordioek entitate bazkidetu guztiak derrigortuko dituzte, bertan ez direnak eta kontra bozkatu dutenak barne.

***Art. 22:***

*Los acuerdos de las Asambleas Generales se adoptarán por mayoría simple de votos, cuando los votos afirmativos superen a los negativos. No obstante, se requerirá mayoría cualificada de votos, que resultará cuando los votos afirmativos superen la mitad de los válidamente emitidos, para la adopción de acuerdos relativos a:*

- *Disolución de la asociación*
- *Modificación de estatutos*
- *Disposición o enajenación de bienes*
- *Remuneración de los miembros del órgano de representación.*

*Los acuerdos adoptados obligarán a todas las entidades asociadas, incluidos las no asistentes y las que hubiesen votado en contra.*

## ZUZENDARITZA BATZORDEA

**23.art:**

Zuzendaritza Batzordea kide anitzeko organoa da eta elkartearen gobernuaz, kudeaketaz, administrazioaz eta elkartea ordezkatzeaz arduratzen da, Batzar Orokorraren xedapen eta erabakien arabera. Zuzendaritza Batzordeko kide izan ahal izango dira soilik entitate bazkidetuak.

Presidenteak, Presidenteordeak, Idazkariak, Diruzainak eta gutxienez 3 batzarkidek eta gehienez 5 batzarkidek osatuko dute.

Zuzendaritza Batzordeko kideak Batzarrean aukeratuko dira eta batzar berean erabakiko da zer kargu hartuko duten. Zuzendaritza Batzordeak berak batzarkideen artean izendatuko ditu Idazkaria eta Diruzaintza ordezkatuko dituztenak edozein kausarengatik Batzordearen bileran ez badira, eta egoki jotzen diren

## *LA JUNTA DIRECTIVA*

***Art. 23:***

*La Junta Directiva es el órgano colegiado de gobierno, gestión, administración y representación de la asociación, de acuerdo con las disposiciones y directivas de la Asamblea General. Sólo podrán formar parte de ella las entidades asociadas.*

*Estará constituida por una Presidencia, Vicepresidencia, Secretaría, Tesorería y un mínimo de 3 y máximo de 5 vocalías.*

*Los miembros de la Junta Directiva serán elegidos por la Asamblea, así como los cargos que ocupan. La propia Junta podrá designar de entre las vocalías quienes hayan de sustituir a la Secretaría y Tesorería en caso de ausencia por cualquier causa, así como nombrar los/as*

batzordetako ordezkariak eta karguak izendatu ahal izango ditu.

*responsables de las comisiones y los cargos que considere oportunos.*

Zuzendaritza Batzordea eratzeko edo batzordeko kideak izendatzeko orduan aintzat hartuko da emakume eta gizonen arteko ordezkaritza orekatua eman behar dela, hala ez egiteko arrazoi objektibo eta zentzuzkoak ematen direnean salbu. Ezinezko gertatzen dela ulertuko da emakume bazkidetuen kopurua presentzia orekatua izate aldera ordezkaritza organoetan parte hartu beharko lukeen emakume kopuruaren bikoitza baino txikiagoa denean.

*El nombramiento y designación de personas para constituir o formar parte de la Junta Directiva deberá hacerse con una representación equilibrada entre mujeres y hombres, salvo por razones fundadas y objetivas, debidamente motivadas. Se entenderá que resulta imposible cuando el número de mujeres asociadas sea inferior al doble de las que deberían participar en los órganos de representación para tener una presencia equilibrada.*

Emakume Nekazarien Estatutuari buruzko urriaren 15eko 8/2015 LEGEaren 7.5 artikuluak zehazten du lau kide baino gehiagoko kide anitzeko organoetan eman beharko den ordezkaritza orekatua, sexu bakoitza ordezkatuta dagoenean gutxienez %40eko portzentajearekin; lau kide edo gutxiagoko kide anitzeko organoetan, sexu biak ordezkatuta daudenean.

*El artículo 7.5 de la LEY 8/2015, de 15 de octubre del Estatuto de las Mujeres Agricultoras define la representación equilibrada en los órganos pluripersonales de más de cuatro miembros cuando cada sexo está representado al menos al 40 %; en los órganos pluripersonales de cuatro miembros o menos, cuando los dos sexos estén representados.*

__24.art:__
Zuzendaritza Batzordearen akordioak bertan diren entitate bazkidetuen botoen gehiengo osoz hartuko dira eta berdinketa ematen denean Presidentearen kalitatezko botoa izango da erabakigarria. Zuzendaritza Batzordea balio osoz eratuko da batzorde kide guztien erdia gehi bat batzarrean direnean.

*__Art. 24:__*
*Los acuerdos de la Junta Directiva se tomarán por mayoría absoluta de votos de sus entidades asociadas presentes y en caso de empate decidirá el voto de calidad del Presidente. Quedará válidamente constituida la Junta Directiva cuando concurran a la reunión la mitad más uno de sus componentes.*

__25.art:__
Kargu guztiak izango dira ohorezkoak eta doakoak, Batzar Orokorrak berariaz bestela erabakitzen duenean salbu. Agintaldia lau urtekoa izango da eta berriz aukeratu ahal izango dira, Batzar Orokorrak berariaz ezeztatzen duenean salbu.

Zuzendaritza Batzordean hutsik geratuko diren tokiak behin behinean bete ahal ditu Zuzendaritza Batzordeak berak Batzar Orokorrak Zuzendaritza Batzordea osatuko duten entitate bazkidetu berriak aukeratu arte edo izendatutakoak beren postuetan berretsi arte.

Zuzendaritza Batzordeko kargua hartuko da Batzar Orokorrak izendapena egin ondoren Zuzendaritza Batzordearen lehen bileran dagokionak onartzen duenean edo karguaz jabetzen denean.

*__Art. 25:__*
*Todos los cargos serán honoríficos y gratuitos, salvo acuerdo expreso de la Asamblea General. La duración del mandato será de cuatro años siendo reelegibles, salvo revocación expresa de la Asamblea General.*

*Las vacantes que pudieran producirse en la Junta, se cubrirán provisionalmente por designación de la Junta Directiva hasta tanto la Asamblea General elija a las nuevas entidades asociadas componentes de la Junta Directiva o confirme en sus puestos a los designados.*

*El cargo de miembro de la Junta Directiva se asumirá cuando una vez designado por la Asamblea General, se proceda a su aceptación o toma de posesión en la primera Junta Directiva que se celebre.*

__26.art:__
Zuzendaritza Batzordeko kide izateko ezinbestekoa izango da pertsona juridikoak ordezkatzen dituztenek ondorengo baldintzak betetzea:

*__Art. 26:__*
*Para pertenecer a la Junta Directiva serán requisitos indispensables para quienes representen a las personas jurídicas:*

a) Izendatuta egotea Estatutuek aurreikusitako eran.
b) Entitate bazkidetua izatea.
c) Adinez nagusia izatea, eskubide zibilen erabateko jabe izatea eta indarrean dagoen legedian ezartzen diren bateraezintasun-egoeretakoren batean ez egotea.
d) Gorbeialde Landa Garapenerako Elkartea/Asociación de Desarrollo Rural Gorbeialde-n bazkidetutako entitate bateko ordezkari izendatua izatea.

*a) Tener designación en la forma prevista en los Estatutos.*
*b) Ser entidad asociada.*
*c) Ser mayor de edad, estar en pleno uso de los derechos civiles y no estar incurso/a en los motivos de incompatibilidad establecidos en la legislación vigente.*
*d) Ser elegido o elegida representante de cualquier entidad asociada a la Gorbeialde Landa Garapenerako Elkartea/Asociación de Desarrollo Rural Gorbeialde*

**27.art:**

Zuzendaritza Batzordea osatzen duten entitate bazkidetuek kasu hauetan utziko dituzte karguak:

a) Agintaldi-epea bukatzea.
b) Dimisioa.
c) Batzar Orokorrak hartutako erabakiagatik Estatutu hauetan aurreikusitakoa betez.
d) Pertsona juridikoaren disoluzioa.
e) Entitate bazkidetua izateari utzi izana.

a) atalean zehaztutako arrazoiarengatik kargu-uztea gertatuz gero, Zuzendaritza Batzordeko entitate bazkidetuek euren funtzioak betetzen jarraituko dute lehen Batzar Orokorra egin arte eta bertan kargu berriak hautatuko dira.

b), c), d) eta e) egoerak gertatuz gero, Zuzendaritza Batzordeak berak beteko du hutsik dagoen lekua, behin behineko izendapenaren bidez. Izendapen hori Batzar Orokorrean aurkeztuko da berretsi dadin edo ezeztatu dadin. Azken kasu honetan, dagokion izendapena egingo da.
Organo honen osaeran eginiko aldarazpen guztiak jakinaraziko zaizkio Elkarteen Erregistroari.

***Art. 27:***

*Las entidades asociadas que componen la Junta Directiva cesarán en los siguientes casos:*

*a) Expiración del plazo de mandato.*
*b) Dimisión.*
*c) Revocación acordada por la Asamblea General en aplicación de lo previsto en los presentes estatutos.*
*d) Disolución de la persona jurídica en su caso.*
*e) Cese en la condición de entidad asociada.*

*Cuando se produzca el cese por la causa prevista en el apartado a) las entidades asociadas componentes de la Junta Directiva continuarán en funciones hasta la celebración de la primera Asamblea General, que procederá a la elección de los nuevos cargos.*

*En lo supuestos b), c), d) y e) la propia Junta Directiva proveerá la vacante mediante nombramiento provisional, que será sometido a la Asamblea General para su ratificación o revocación, procediéndose, en este último caso, a la designación correspondiente.*

*Todas las modificaciones en la composición de este órgano serán comunicadas al Registro de Asociaciones.*

**28.art:**

Ondorengoak izango dira, besteak beste, Zuzendaritza Batzordearen eginkizunak:

a) Elkartearen kudeaketa arrunta zuzentzea, Batzar Orokorraren jarraibideen arabera eta haren kontrolpean.
b) Elkarteak garatu beharreko jarduerak antolatzea eta Elkartea ordezkatzea.
c) Bazkidetutako entitateen onarpenaz ebaztea eta bajak proposatzea.
d) Estatutu hauetan eta Elkartearen barne araudian jasotako aginduak interpretatu eta estatutu hauek eta Batzar Orokorraren akordioek ezarritakoa betearazi, beti elkarteen inguruan indarrean den lege-araudiari jarraituz.

***Art. 28:***

*Serán facultades de la Junta Directiva, entre otras, las siguientes:*

*a) Dirigir la gestión ordinaria de la Asociación, de acuerdo con las directrices de la Asamblea General y bajo su control*
*b) Programar las actividades a desarrollar por la Asociación y representar a la misma.*
*c) Resolver sobre la admisión y proponer la baja de entidades Asociadas*
*d) Interpretar los estatutos y el reglamento interior de la Asociación y cumplir y hacer cumplir las disposiciones de estos estatutos y los acuerdos de la Asamblea General, sometiéndose siempre*

e) Urteko gastuen eta diru-sarreren aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoeraren onespena Batzar Orokorraren esku jartzea.
f) Elkartearen helburuak ondoen betetzeko behar diren eta egoki jotzen dituen batzordeak sortzea eta izendatzea, batzordeen lana koordinatuz. Bakoitzeko presidentea izango da Zuzendaritza Batzordeko kide bat edo azken honek egoki jotzen duena.
g) Elkartearen helburuak betetzeko beharrezko jotzen diren langileak eta zerbitzuak kontratatzea, horren guztiaren berri Batzar Orokorrari emanez.
h) Bazkidetutako entitateek egingo dituzten proposamenak edo iradokizunak jasotzea eta dagokionean behar besteko neurriak hartzea.
i) Barne funtzionamendurako arauak jartzea eta Batzar Orokorrari berariaz esleituta ez zaizkion eginkizunak betetzea.
j) Elkarteak parte hartzen duen elkarte edo federazioetarako ordezkariak izendatzea.
k) Eta, oro har, dagozkion eginkizun guztiak Elkartearen administrazio lan on eta zuzena burutzeko.

*a la normativa legal vigente en materia de asociaciones.*
*e) Someter a la aprobación de la Asamblea General el presupuesto anual de gastos e ingresos, así como el estado de cuentas del año anterior.*
*f) Crear y nombrar cuantas comisiones estime convenientes para el mejor cumplimiento de los fines de la Asociación, coordinando al mismo tiempo la labor de las mismas y las cuales serán presididas por un componente de la Junta o quien ésta considere oportuno.*
*g) Contratar personal y servicios estimados como necesarios para la consecución de los fines de la Asociación, dando cuenta de ello a la Asamblea General.*
*h) Atender las propuestas o sugerencias que formulen las entidades Asociadas, adoptando al respecto, las medidas oportunas.*
*i) Dictar normas interiores de organización y ejercer cuantas funciones no están expresamente asignadas a la Asamblea General.*
*j) Nombrar a representantes en los distintos órganos de asociaciones o federaciones de las que forme parte la asociación.*
*k) Y en general, todas las funciones que le corresponden para la buena y recta administración de la Asociación.*

**29.art:**
Zuzendaritza Batzordea ohiko bileran hiru hilean behin batuko da edo osatzen duten kideen heren batek edo Presidenteak eskatzen dutenean.

Presidentea ez dagoenean, mahaiburu lanak egingo ditu presidenteordeak eta azken hau ez dagoenean adinez nagusiena den batzordekideak.

Idazkariak bilkuren akta egingo du eta dagokion liburuan jasoko da.

***Art. 29:***
*La Junta Directiva se reunirá ordinariamente una vez al trimestre, o siempre que lo soliciten 1/3 de los componentes de la misma, o la Presidencia.*

*En ausencia de la presidencia presidirá la Junta la vicepresidencia y en su ausencia el componente de la Junta de mayor edad.*

*De las sesiones, la secretaría levantará acta que se transcribirá al Libro correspondiente.*

**KIDE BAKARREKO ORGANOAK**

**PRESIDENTEA**

**30.art:**
Elkarteko presidenteak elkartearen legezko ordezkaritza bere gain hartzen du eta Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrak hartutako erabakiak beteko ditu. Bien lehendakaria izango da.

***ORGANOS UNIPERSONALES***

***PRESIDENCIA***

***Art. 30:***
*La presidencia de la Asociación asume la representación legal de la misma, y ejecutará los acuerdos adoptados por al Junta Directiva y la Asamblea General, cuya presidencia ostentará respectivamente.*

**31.art:**
Presidenteak ondorengo eginkizunak beteko ditu :

a) Elkartea balio osoz ordezkatzea.
b) Batzar Orokorra eta Zuzendaritza Batzordea deitzea eta mahaiburu lanak egitea, batean eta bestean eztabaidak zuzentzea eta bozketan berdintasuna egonez gero, kalitateko botoaren bidez erabakitzea.
c) Eguneko Aztergaien Zerrenda egitea.
d) Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak hartutako akordioak betearaztea.
e) Idazkariak eginiko akta-agiriak Ontzat Ematea.
f) Balio osoz adostutako ordainketak agintzea.
g) Diruzaintzarekin txekeak, ordainagiriak eta antzeko agiriak izenpetzea.
h) Idazkariak egingo dituen egiaztagiriak ontzat ematea.
i) Zuzendaritza Batzordeari jarduera plana proposatzea, lanak bultzatuz eta zuzenduz.
j) Batzar Orokorrak emandako eskumenak betetzea, azken kasuan, berariazko akordioaren bidez eta soilik bere eskumenekoak ez direnean.
k) Oro har, Elkartearen gobernu onerako eta administrazio egokirako premiazko eta presazko jotzen dituen neurri guztiak hartzea, eta Batzordeari berri ematea.

*Art. 31:*
*Corresponde a la Presidencia:*

*a) Representar con plenos poderes a la Asociación.*
*b) Convocar y presidir la Asamblea General y la Junta Directiva, dirigir las deliberaciones de una y otra y decidir con su voto de calidad en caso de empate de votaciones.*
*c) Fijar el Orden del Día.*
*d) Ejecutar los acuerdos adoptados por la Asamblea General o por la Junta Directiva*
*e) Autorizar con el Vº Bº las actas levantadas por la Secretaría.*
*f) Ordenar pagos acordados válidamente.*
*g) Firmar con la Tesorería los cheques, recibos u otros documentos análogos.*
*h) Autorizar con su visto bueno las certificaciones que expida la Secretaría.*
*i) Proponer el plan de actividades de la Asociación a la Junta Directiva, impulsando y dirigiendo sus tareas.*
*j) Ejercitar aquellas competencias que le otorgue la Asamblea General mediante acuerdo expreso, siempre que no sean de su exclusiva competencia.*
*k) En general, adoptar cuantas medidas considere urgentes para el mejor gobierno, régimen y administración de la Asociación, dando cuenta a la Junta.*

**32.art:. PRESIDENTEORDEA**
Presidenteordeak Presidenteari laguntza ematek eginkizunak bereganatuko ditu eta hura ordezkatuko du Presidenteak aldi baterako dagozkion eginkizunak betetzerik ez badu. Halaber, Presidenteak berariaz eskuordetzen dituen eskumenak Presidenteordeari dagozkio.

***Art. 32:. VICEPRESIDENCIA***
*La Vicepresidencia asumirá las funciones de asistir a la Presidencia y sustituirle en caso de imposibilidad temporal de ejercicio de su cargo. Asimismo, le corresponderán cuantas facultades delegue en él o ella, expresamente, la Presidencia.*

**33. art: IDAZKARIA**
Idazkariari dagokio elkartean sartzeko eskabideak jasotzea eta izapidetzea, bazkidetutako erakundeen fitxategia eta Erregistro Liburua eramatea, Akta Liburuak gordetzea eta aktak idaztea.

Halaber, Elkarteen inguruan indarrean diren legezko xedapenak betetzen direla zainduko du. Horrela, Elkartearen agiri ofizialak babestuko ditu, Liburu eta artxibo sozialen edukia egiaztatuko du eta Zuzendaritza Batzordeen izendapenei eta helbide sozialaren aldaketei buruzko aginduzko jakinarazpenak agintaritza eskudunari bidaliko dizkio.

***Art. 33: SECRETARÍA***
*A la Secretaría le incumbirá de manera concreta recibir y tramitar las solicitudes de ingreso, llevar el fichero y el Libro de Registro de entidades asociadas, atender a la custodia y redacción del Libro de Actas.*

*Igualmente, velará por el cumplimiento de las disposiciones legales vigentes en materia de Asociaciones, custodiando la documentación oficial de la Entidad, certificando el contenido de los Libros y archivos sociales, y haciendo que se cursen a la autoridad competente las comunicaciones preceptivas sobre designación de Juntas Directivas y cambios de domicilio social.*

**34. art: DIRUZAINA**

Diruzainak egindako diru-sarrerak eta ordainketak jakinaraziko ditu, diru-sarreren eta gastuen urteroko aurrekontua nola aurreko urteko kontuen egoera burutuko ditu. Horiek Zuzendaritza Batzordean aurkeztu beharko dira, honek, bere aldetik, Batzar Orokorraren esku utzi eta bertan onetsi daitezen. Kontularitza liburuak eramango eta zainduko ditu eta Presidentearekin izenpetuko ditu ordainagiriak, txekeak eta antzeko agiriak.

***Art. 34: TESORERÍA***

*La Tesorería dará a conocer los ingresos y pagos efectuados, formalizará el presupuesto anual de ingresos y gastos, así como el estado de cuentas del año anterior, que deben ser presentados a la Junta Directiva para que ésta, a su vez, los someta a la aprobación de la Asamblea General. Llevará y custodiará los Libros de Contabilidad y firmará con la Presidencia los recibos, cheques y documentos análogos.*

**35.art: BATZARKIDEAK**

Batzarkideen eginkizunak izango dira Zuzendaritza Batzordean aztertuko diren azterlanetan eta eztabaidetan parte hartzea, eta bereziki honek berariaz agindutako eginkizunak betetzea.

***Art. 35: VOCALÍAS***

*Las vocalías tendrán como misión cooperar en los estudios y discusión de los asuntos que se traten en la Junta Directiva, y especialmente en las funciones que específicamente le fueran encomendadas por ésta.*

## IV KAPITULUA

## ERREGIMEN EKONOMIKOA

**36.art:**

Elkarteak bere helburuak betetzeko aurreikusitako baliabide ekonomikoak honako hauek dira:

a) Batzar Orokorrak onetsitako ohiko eta aparteko sarrera-kuotak.
b) Jasoko dituen dohaintzak eta diru-laguntzak eta Batzar Orokorrak onetsiko dituen derramak.
c) Aurreko ondasunen interesak, errentak eta eskubideen irabaziak. Derramatzat joko da Batzar Orokorrak adostuko duen ekarpen berezia eta bazkidetutako erakundeek beren borondatez emango dute Elkartearen helburuekin zerikusia izango duen aparteko gastuari aurre egiteko,
d) Zerbitzu, prestazio eta ondasunetatik eratorritako diru-sarrerak.
e) Oinordetza, legatu, diru-laguntza eta dohaintza bidez jasoko dituenak.
f) Elkarteak eskura dezakeen bestelako edozein sarrera ekonomikoa, Elkartearen helburuak lortzera bideratzen denean betiere.

## *CAPITULO IV*

## *DEL REGIMEN ECONOMICO.*

***Art. 36:***

*La Asociación para el cumplimiento de sus fines contará con los siguientes ingresos:*

*a) Las cuotas ordinarias y extraordinarias que acuerde la Asamblea General.*
*b) Los donativos y subvenciones que reciba; así como las derramas que en su caso acuerde la Asamblea General.*
*c) Los intereses, frutos, rentas y productos de los fondos anteriores. Se entiende por derrama la contribución especial acordada por la Asamblea General y que satisfarán las entidades asociadas voluntariamente con el fin de atender un gasto extraordinario relacionado con los fines de la Asociación.*
*d) Los ingresos procedentes de sus servicios, prestaciones y bienes en general.*
*e) Los que reciba en concepto de herencias, legados, subvenciones y donativos.*
*f) Cualquier otro ingreso económico que por la Asociación pueda obtenerse siempre y cuando se destine al cumplimiento de los fines de la misma.*

Elkartze eta ekonomia ekitaldia urterokoa izango da eta urte bakoitzeko abenduaren 31n itxiko da.

*El ejercicio asociativo y económico será anual y su cierre tendrá lugar el 31 de diciembre de cada año.*

Ekonomia-jarduerak gauzatzearen ondorioz, zerbitzuak ematea barne, Elkarteak eskuratutako onurak soilik bere helburuak betetzera bideratu beharko dira. Inolaz ere

*Los beneficios obtenidos por la asociación, derivados del ejercicio de actividades económicas, incluidas las prestaciones de servicios, deberán destinarse,*

ezingo dira banatu entitate bazkidetuen artean eta, halaber, ezingo zaie irabazi-asmoak dituzten pertsona fisiko edo juridikoei doako lagapena egin.

*exclusivamente, al cumplimiento de sus fines, sin que quepa en ningún caso su reparto entre las entidades asociadas, ni su cesión gratuita a personas físicas o jurídicas con interés lucrativo.*

**37. art:**
Elkartearen ondare soziala euro batekoa da

***Art. 37:***
*El patrimonio social de la Asociación es de 1 €*

**38. art:**
Elkarteak funtsak gordeko ditu banku establezimendu batean.

***Art. 38:***
*La Asociación depositará sus fondos en un establecimiento bancario.*

## V KAPITULUA

## ESTATUTUEN ALDARAZPENA

## *CAPITULO V*

## *DE LA MODIFICACION DE ESTATUTOS*

**39. art:**
Estatutuen aldarazpena atxikitako erakundeen Ezohiko Batzar Nagusian adostu beharko da, xede horrekin berariaz deitutako bilera eta Zuzendaritza Batzordearen erabakiz egin ahal izango da edo honen adostasunez inskribatutako erakunde bazkide guztien bi herenek eskatzen dutenean. Edozein kasutan, Zuzendaritza Batzordeak hiru erakunde bazkidek osatutako lantaldea eratuko du Estatutuak aldarazteko proiektua egin dezan, Zuzendaritza Batzordeak berak ezarritako zuzentarauen arabera eta epe bat ezarriko da proiektua amaituta egon dadin.

***Art. 39:***
*La modificación estatutaria deberá acordarse en Asamblea General Extraordinaria de entidades asociadas convocada específicamente con tal objeto y podrá hacerse a iniciativa de la Junta Directiva, o por acuerdo de ésta cuando lo solicite 2/3 de las entidades socias inscritas. En cualquier caso, la Junta Directiva designará una Ponencia formada por tres entidades socias, a fin de que redacte el proyecto de modificación, siguiendo las directrices impartidas por aquélla, la cual fijará el plazo en el que tal proyecto deberá estar terminado.*

**40. art:**
Aldarazteko proiektua esandako epean idatzi ondoren, Presidenteak une horretatik aurrera egingo den lehen Zuzendaritza Batzordearen Gai Zerrendan jasoko du eta Zuzendaritza Batzordeak onetsiko du edo, bere kasuan, Txostengileei itzuliko die gaia berriz azter dezaten.

Onartua izango balitz, Zuzendaritza Batzordeak egingo den lehen Ezohiko Batzar Nagusiaren Gai Zerrendan jasotzea adostuko du edo helburu horrekin deitzea erabakiko du.

***Art. 40:***
*Una vez redactado el proyecto de modificación en el plazo señalado, la Presidencia lo incluirá en el Orden del Día de la primera Junta Directiva que se celebre, la cual lo aprobará o, en su caso, lo devolverá a la Ponencia para nuevo estudio.*

*En el supuesto de que fuera aprobado, la Junta Directiva acordará incluirlo en el Orden del Día de la próxima Asamblea General Extraordinaria que se celebre, o acordará convocarla a tales efectos.*

**41.art:**
Batzarraren deialdiarekin bidaliko da Estatutuak aldarazteko proposamena, entitate bazkidetuek Idazkaritzari bidal diezazkioten egoki jotzen dituzten zuzenketak, eta horiek denak Batzar Orokorrari jakinaraziko zaizkio, bilkura egin baino zortzi egun lehenago Idazkaritzak bere eskuetan baditu.

***Art: 41:***
*A la convocatoria de la Asamblea se acompañará el texto de la modificación de Estatutos, a fin de que las entidades socias puedan dirigir a la Secretaría las enmiendas que estimen oportunas, de las cuales se dará cuenta a la Asamblea General, siempre y cuando estén en poder de la Secretaría con ocho días de antelación a la celebración de la sesión.*

GORBEIALDE
LANDA GARAPENA

Zuzenketak banaka edo taldeka aurkeztu ahal izango dira, idatziz egingo dira eta alternatiba gisa proposatzen den testua jasoko dute.

Zuzenketak bozkatu ondoren, Batzar Orokorrak Estatutuak aldarazteko akordioa hartuko du eta hirugarrenen aurrean eragina izango du Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatuta geratzen denetik aurrera.

*Las enmiendas podrán ser formuladas individualmente o colectivamente, se harán por escrito y contendrán la alternativa de otro texto.*

*Tras la votación de las enmiendas, la Asamblea General adoptará el Acuerdo de modificación estatutaria, el cual sólo producirá efectos ante terceros desde que se haya procedido a su inscripción en el Registro General de Asociaciones.*

## VI KAPITULUA

## ELKARTEA DESEGITEA

**42. art:**
Elkartea desegin egingo da ondorengoak gertatzen direnean:

a) Bazkidetutako entitateen borondatez. Berariaz helburu horrekin deitutako Ezohiko Batzar Orokorrean adieraziko dute.
b) Kode Zibilaren 39. Artikuluan zehaztutako zioengatik.
c) Epai judizialak hala ezarri duelako.

a) atalean adierazitako zioa ematen denean, disoluzioak Batzar Orokorraren akordioa beharko du, berariaz eta helburu horrekin deitutako Ezohiko bileran eta akordioa bazkidetutako erakundeen gehiengo kualifikatu bidez hartu beharko da.

**43. art:**
Elkartea deseginez gero, desegitea adosten duen Batzar Orokorrak batzorde kitatzaile bat izendatuko du. Batzordea Zuzendaritza Batzordeko kideen arteko bost lagunez osatuko da. Bazkide erakundeen eta hirugarren pertsonen aurrean betebeharrak bete eta gero, soberan geratzen den ondarea irabazi-asmorik gabeko helburuak eta antzeko ezaugarriak dituzten elkarteei emango zaie.

## *CAPITULO VI*

## *DE LA DISOLUCION DE LA ASOCIACION*

***Art. 42:***
*La asociación se disolverá:*

*a) Por voluntad de las entidades socias, expresada en Asamblea General Extraordinaria convocada al efecto.*
*b) Por las causas determinadas en el Art. 39 del Código Civil*
*c) Por sentencia judicial.*

*En el caso del apartado a) la disolución requerirá acuerdo de la Asamblea General en reunión Extraordinaria expresamente convocada para este fin y debiendo adoptarse el mismo por mayoría cualificada de sus entidades asociadas*

***Art. 43:***
*En el acuerdo de disolución, se nombrará por la Asamblea General una comisión liquidadora, compuesta por cinco componentes de la Junta Directiva, que una vez satisfechas las obligaciones frente a las entidades socias y terceras personas se establecerá que el destino del remanente irá a una entidad sin ánimo de lucro o para fines sin ánimo de lucro.*

## AZKEN XEDAPENA

Batzar Orokorrak Barne Araubidea onetsi ahal izango du, Estatutu hauen garapen modura, baina agiri honek ez ditu, inola ere, Estatutu hauetan jasotzen diren arauak aldatuko.

## *DISPOSICION FINAL*

*La Asamblea General podrá aprobar un Reglamento de Régimen Interior, como desarrollo de los presentes Estatutos, que no alterará, en ningún caso, las prescripciones contenidas en los mismos.*

X